KALAPUTXT

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2020ko martxoa - 203 zenb.

AUZOKATU ELKARTEA

Marama batekin jolasten

Nati
Arreitunandia Larrañaga
Tolon



XXV. BERDEL JAIA



ARRAUN TALDEA HAZTEN



LEHENGO DIRUA: UR AZPIXAN, ERREMEIXUETAN ETA ESAERETAN



INDEPENDENTZIA
Aberri Eguna 2020



Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai 943 19 50 26
..... 626 61 13 92
Lon Apraiz 943 60 32 50
..... 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) .. 943 74 12 77
Ana Mandiola (Eibar) 943 82 05 33

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
ANTON taxia 666 22 19 99
XABI taxia 656 28 90 26
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 902 54 32 10
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87
Santa Catalina eleiza 943 60 32 00

Iritzixa

Maribel Urkiri Arruti

GRAFITIA

Hiritar artea.- Grafitia Italiar hitza ei da. Margoketa hiritarrari ere hala deitzen zaio, margoketa libreari; antzinakoek oholezko tablak erabiltzen zituzten idazteko, ilegaltasuna nabarmentzeko batez ere. Euren jatorria, atzera eginda, *Erromako Inperio*ko garaikoa da; era arkeologikokoek hormetan pintatzeko ohitura zeukaten, batez ere satiriko edo kritikoak zirenean, baina herriak edertzeko izaten zen. Ameriketako Argentinan, Colombian, Mexicon, Uruguayen ere bai, artista askorentzat adierazpen modu bat da, bake mezuak ohartarazteko eta baita aldaketa sozialak ere. Gaur egun ez ei dago herri edo hiririk grafitero mugimendurik ez daukanik. Kaleetako artea modu berri bat da artista askorentzat, hiriak edertzeko proiektu bat. Gazteizen, adibidez, alde zaharreko etxe eta fatxadek itxura koloretsuagoa daukate grafitiei esker, emakume euskaldun batena ere bai. Graffiti egileak beren artea beste adierazpide mota bat dela diote. Aspaldian asko ugaritu dira gure kaleetako hormetan egindakoak. Horietako batzuk artelanen itxura oso-osoa daukate. Baimenak eskatuz gero, ez da arazorik egoten grafitiak egiteko.

Hau guztia dator gure kaleetako hormetan, nahiz publikoak nahiz pribatuak, igogailuetan ere bai, kartelak, pintadak, eta edozer esaten duten garabatoak ikusi daitezkeelako, beste herrietako jaietako kartel haundiak eta abar.

Ez litzateke hobe izango horiek guztiak horretarako nonnahi jarrita dauden koadro haundietan ipintzea eta horien ordez grafiti eder batzuk, Zabielgo plazako horman ikusi ahal izan dugun olabarroa bezalakoa? Arte Eskolakoek ere lan ederra egin dute Atxukalen, errotonda azpiko tunelean eta frontoi kalera doan tuneleko hormetan. Ez al dugu nahi, ba, herri txukun eta eder bat izatea geure Mutriku!

Nire ustez saiatu beharko giñateke igogailuak, etxeak eta hormak errespetatzen, eta behar den lekuetan jartzen geure gustuko kartelak. Baita ere gustura ikusiko genituzke grafiti ederrak, egiten dakitenen eskutik. Honek ez du esan nahi beste guztiok, horretan ibiltzen ez garenok, ez daukagunik zaindu beharrik herria garbi eukitzeko. Ea denon artean herri apaindu bat egiten dugun!



www.lurraldebus.eus

900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:50	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

						ostr. lanegun
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	Ig 20:30	Lr 21:00
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	Lr 7:15	Ig 8:15	orduro	20:15	21:25	Lr 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	Lr 6:50	Ig 7:45	orduro	Lr 21:45	Ig 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Mutriku	7:55	8:55	orduro	22:55	20:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Lr 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	Lr 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	Lr 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	Lr 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	Lr 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	12:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	12:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:

www.kalaputxi.eus/garraioa

BETAURREKO BERRIAK

Hau irakurtzerako aste batzuk paseak izango dira eta gogoratzeaz batera barruko zirrarak irauten dit oraindik. Herriko eta inguruetako plazak eta kaleak jendez lepo. Nork esango zigun guri martxoaren 8ak honelako indarra izango zuenik?

"*Izan zirelako gara, garelako izango dira...*" Halaxe jaso genuen beste emakumeen eskuetatik borrokarako lekukoa. Garai ilunetatik zetozen haiek; guri, berriz, garai grisak bizitzea egokitu zitzaigun. Orduko bilera amaigabeak, txosten luze eta aspergarriak, teorizazio ulertezinak... mundua aldatu nahi eta gaztetasuna borborka. Feminismoa ulertzeko modu urriaren araberako jarrerak eta jokaerak hartzera behartuak, gaurko jardueran lekurik izango ez luketen moduak.

Gaurko talaiatik begiratuta parte hartzearen aniztasunak beste modu batera pentsatzera eramaten nau/gaitu. Feminismoa emakumeen kontua izatetik gizartearena izatera sentitzeraino, inguruko jendea konplize bilakatuz. Feminismoa gaizki ikusia izatetik nolabaiteko prestigioa lortzeraino. Feminismo kolore-tsua, bizia, parte hartzailea.

Garaia haietako betaurrekoak kendu eta ikusmen zabalagoa, anitzagoa, kolorea duten betaurrekoak jartzea dagokigu, betaurreko moreak. Pasatako urteak ez dira alferrikakoak izan, honen poderioz lortutako esperientziek eraman naute ondorio hauetara, patxadaz hausnartzera.

Asko egin da eta asko dago egiteko. Benetako berdintasunerako bidea luzea da eta bidelagun guztiak beharrezkoak. Egun seinalatu bateko kontua ez delako... Gora borroka feminista!

Auro Ansorregi Altzibar

ARNASA EMATEKO AUKERA

Zein ote da Euskal Herrian dugun hizkuntz aniztasuna? Horren erantzunak jaso ditugu institutuan bi astean egin ditugun Euskarako saioetan: "Hitz egiten dugunean, gure hizkuntzari arnasa hartzeko aukera ematen diogu."

Gai honekin hasteko, Euskal Herriko bitxikeria baten berri izan genuen: Manex Burubeltza, hemen soilik dugun ardi arraza preziatua. Ardiak buru beltza eta gorputz zuria duen bezala, Euskal Herrian ere hainbat kolore edota kultura daude: gutxi gorabehera, 100 hizkuntza hitz egiten dira, etorkinak direla eta. Nahiz eta hala izan, guztiok (edo gehientsuenok) hizkun-tza bera konpartitzen dugu: euskara. Baina hizkuntza eta kultura aberastasun handia egoteak ondorio txarrak ere badauzka; nabarmenena, erdararen erabilera handitzea. Eta zuk, zer diozu honen inguruan?

Bestetik, zer etortzen zaizu burura "aniztasuna" hitza entzunda? Hainbat lanbidetan jarduten duten pertsonei egin zaien elkarrizketan erantzun hauek jaso dira: aberastasuna, tolerantzia, kolore biziak... Horiei buruz jardun genuen klasean. Gainera, Ondarroara etorritakoekin grabatutako bideoa ere ikusi genuen; bertan jaio ez baina euskara ikasi dutenen ingurukoa izan zen. Azkenik, Euskal Herriko arnasguneei eta euskararen erabilerari buruz hitz egin genuen, eta esan genuen sarriegi gertatzen dela, euskaraz jakin arren, erdaraz egitea.

Hau guztia ikusita, konturatzen al gara zein garrantzitsua den Mutriku bezalako euskararen arnasguneetan bizi garenon portaera? Ez al gara konturatzen euskara indartuko duten pertsonak garela?

Euskarari arnasa eman nahi? Hitz egin ezazu euskaraz!

Mutrikuko institutuko 4B taldea

MAITA DEZAGUN ONDO, IZAN HITZAKIDE

Hitza gure bizitzaren parte da. Hitzara jotzen dugu informazioa jaso nahi dugunean; eta Hitzara jotzen dugu informazioa zabaldu nahi dugunean. Baina gure bizitzaren parte izaten jarrai dezan, beharrezkoa du babes ekonomikoa, baita irakurleona ere.

Hitzak aurrera egin dezan, hau da, herriko eta inguruetako albisteak egunero eta euskaraz hartzen jarrai dezazuen, eta, era berean, geuk ere ahotsa eduki dezagun,

Maita dezagun ondo, izan Hitzakide!

LEA-ARTIBAIALDEKO ETA MUTRIKUKO HITZA

egin zaitez HITZAkide

HITZAri laguntzeko aukera bat baino gehiago daukazu.

Hitzakidea
50€ urtean
Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa PDF formatuan izango dut
+
Abantailak, deskontuak eta zerbitzuak eskuratuko ditut

Hitzakide harpideduna
77€ urtean
Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa etxean jasoko dut eta PDF formatuan ere izango dut
+
Abantailak, deskontuak eta zerbitzuak eskuratuko ditut

Hitzakide iragarlea
77€ urtean
Proiektua indartzen lagunduko dut
+
Prentsa eskaintza osoa jasoko dut eta PDF formatuan ere izango dut
+
Publizitate tratu bereziak jasoko ditut
+
Abantailak, deskontuak eta zerbitzuak eskuratuko ditut

94-684 44 36 · harpidetza@hitza.eus · lea-artibaietamutriku.hitza.eus

*Kalaputxi*k irakurleen gutunak plazaratzen ditu. Datozen ordenean eta espazioak eskaintzen duen aukeraren barruan, moztu edo hurrengo hilerako laga dezakegu. Gutunak izen abizenekin bidaliko dira:
Kalaputxi, Barrenkalea 12 behea, 20830 Mutriku edo internet bidez, **kalaputxi2001@gmail.com**

Argitaratzailea **Karenka Komunikazio Elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **kalaputxi2001@gmail.com / aldizkaria@kalaputxi.eus**
Web gunea: **www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga, Ibon Aginaga**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

XXV. BERDEL JAIXA

1994ko martxoaren 3an Mutrikuko San Pedro Kofradiako Batzordeak BERDEL JAIA ekitaldia prestatzea erabaki zuen, orduko egoera aztertu eta helburu batzuk finkatuz.

Moila zaharraren zati handi bat erori zenez, 1996 eta 1997 urteetan ezin izan zuten ekitaldia aurrera eraman, baina indarberriturik ekin zioten hurrengoan.

Hogeita bostgarren edizioaren atarian, hasiera hura nolakoa izan zen azal diezaguten eskatu diegu Kofradiako Batzorde hartakoei.

BERDEL eguna

Berdela, betidanik, prestigio handirik izan ez duen arraina izan da. Inoiz, grasa ugari duenez, arrain urdinen artean aberatsenetakoa, osasunaren kaltegarritzat hartu izan da. Ondorioz, bere salmenta gutxi hedatzen zen eta prezio oso apalean.

Jose Maria Busca Isusi gastronomo ospetsuak honela zioen berdelari buruz bere liburu batean: "*Euskaldunok gutxi estimatu arren, oso arrain ona da berdela. Fresko-freskoa denean izaten du jateko punturik onena; gustu ederreko arraina, merkea eta edozein jakik adina elikamaila duena, haragiaren inbidiarik gabekoa*". Horra nahiko arrazoi berdelarekiko interesa indartzeko zerbait egin beharra sentitu eta hausnartzen hasteko. Jakitun gainera, zerbait lortuz gero, salmentak handitu eta prezioak gora egin zezaketela, eta, era berean, arrantzaleen berdel sasoiko beharrari duintasuna eman, buru belarri ekin genion lanari.

Oinarrizko ideiak finkatu ondoren, pentsatu genuena aurrera eramateko hainbat pertsonaren laguntza beharko zenez, horiek zabaltzeari eta ekarpenak jasotzeari ekin genion azken erabakia hartzeko. Ondoren, jakina, lan zailena: egitaraua prestatu, ekimen guztiak aurrera ateratzeko beharrezko ziren azpiegitura, lan-talde eta lehengai guztiak eskuratu eta jai bat izango zenaren zabalkuntzari ekin. Horrela gauzatu zen 1994ko martxoaren 3an lehenengo "*Berdel Jaixa*" gutxietsitako berdela herritarren artean promozionatu, zabaldu, baloratu eta duin bihurtzeko, eta, nola ez, herriko arrantzaleei bultzada emateko.

Ekimenak Mutrikuko Udalaren babes osoa jaso zuen, jai gastronomikoa izan arren, herriarentzat erakargarri bat gehiago suposatzen zuelako. Lehenengo bi urteetan, 1994an eta 1995ean, jaiaren antolaketa egun batera mugatu zen, larunbatera eta arratsaldeko bostetatik zortziak arte. Berdela modu desberdin askotan prestatzen zen, eta jendeari doan eskaini zitzaion lehen urtean, eta prezio oso baxuan hurrengo urte guztietan.

Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

MUTRIKUKO TANATORIOA
Iriagirre z/g
Albia
EHORZKETA ZERBITZUAK
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

1995. urteko maiatzaren 16an, moila zaharraren astilero aurreko zati handi bat erori zenez, konponketa egiten iraun zuten hurrengo bi urteetan ezin izan zen ospakizunik antolatu. 1998an, aurreko bi urteetan izan zuen arrakasta eta kanpotarrentzat erakargarria gertatzen zela ikusirik, III. edizioari indartsu heldu genion egitarau aberatsagoa betetzeko asmoarekin. Herritarren borondatezko parte hartzea zen, zer esanik ez, garrantzi handia ematen genion beste baloreetako bat, auzolana gero eta zailago gertatzen den gizarte honetan.

Berdela promozionatu eta Mutrikuren izena hedatzeko, egun eta espazio gehiagotara zabaldu zen festa: arrantza munduarekin eta berdelarekin erlazionatutako aktibitateak herri osoari eta kolektibo ezberdinei zuzendu zitzaizkien jai egunaren aurreko astean zehar.

Urteetan zehar egindako aktibitateen adibide: prentsa aurrekoak; berdel salmentaren antzezpena; Mutrikuko Berdela aipamena Udaletxeko areto nagusian; portuari buruzko hitzaldiak kanpoko dikea egiteko zegoenean; arrantzaren egoera, kutsadura, arrain urdinen onurak eta beste zenbait gairi buruzko mahai-inguruak; berdelari buruzko sukaldari ezagunen arteko solasaldiak; haurren sukaldaritza tailerrak; berdel-pintxo ikastaroak; berdel plateren lehiaketa ostalaritza eskola eta elkarte gastronomikoentzat; itsasontzian irteerak; berdel aparejuen prestaketa, eta abar luze bat. Berdelaren errezeta liburu bat ere publikatu zen: Juan Jose Lapitz-en sarrera, berdelaren elikaduraren balioa eta xehetasun biologikoak, berdela sukaldaritzan eta errezetekin.

Aktibitateen artean aipamen berezia merezi duena arrantzale jubilatuen kanporako irteerak dira, Mutriku eta berdela sustatze asmoz. 2001. urtean Bakioko txakolin ferian izan ziren martxoaren 19an eta Donostiako San Martin merkatuan apirilaren 4an, berdel errea doan eskainiz. 2000. urtean Ordizia, Tolosa eta Bilboko Erribera merkatuan egin zuten eskaintza, eta 2003ko apirilaren 2an Gasteizko Abastos-eko merkatu plazara iritsi ziren. Ekintza txalogarria benetan.

Hogeita bostgarren aldiz ospatuko den Berdel Jai honetan, atzerako begirada bat emanez jabetzen gara jai horrek eragin garrantzitsua izan duela Mutriku ezagutarazteko, eta berdelaren ezagutza eta balorapenean ere salto kualitatibo bat izan duela, baina prezioaren gain ez duela lortu halako eragin handirik: 41 pezeta egin zuen 1994an eta 2011n iritsi zen euroa igarotzera; iaz 1,30€ko prezioa egin zuen. Bitarte horretan herriko ontziak desagertzen joan dira.

Aurten ere berriz nabarituko dugu jai giroa herriko moilan eta kaleetan, hogeitabosgarrenez.





Argazkiak: Iñigo Andonegi

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

1985 Karna




ZUBIXA
TXIKIS
"GRAN"
FUNTZION






ZUBIXA
TXIKIS
"GRAN"
FUNTZION


ZUBIXA
TXIKIS
"GRAN"
FUNTZION
295k
295k-


ZUBIXA
TXIKIS
"GRAN"
FUNTZION



abalak 2020

















Emakumeen ahotsak Institutuan

Izan direlako gara, garelako izango dira

Askotan esan izan da letra larriz idatzitako historiak ez duela jaso izan mendeetan zehar emakumeek egin izan dituzten hainbat eta hainbat ekarpen. Emakumeen Nazioarteko Egunaren testuinguruan, eta Hesigabezi ikasgaiko ikasleen eskutik, herriko emakumeen ahotsak ekarri nahi izan ditugu aurten ere Institutura, eta euren lana ezagutu, aitortu eta eskertu.

Lau egunetan zehar, DBHko ikasle guztiekin egon diren hogeita bi emakumeren bizipenak eta ekarpenak ezagutzeko aukera izan dugu: **Maitane Puebla, Mari Carmen Ansorregi, Irene Galarraga, Eva Ibarrola, Maite Barruetabeña, Leire Mugerza, Esti Urizar, Aintzane Arrieta, Malen Aldalur, Ioana Eremieva, Ane Urkiri, Itziar Beristain, Mari Kruz Aldalur, Haizea Egaña, Marian Arrizabalaga, Leyre Arrieta, Lurdes Pagoaga, Josefina Pagoaga, Oihana Kortazar, Arantza Ugarte (Oikina)** eta **Nerea Illarramendi** izan ditugu gure artean eta une hunkigarri, alai, triste, eredugarri zein hezigarriak eskaini dizkigute. Hainbat eta hainbat hausnarketa, analisi, ondorio, anekdota… entzuteko aukera izan dugu, eta nahiz eta guzti-guztiak artikulu honetan ezin izango ditugun jaso, egunotan partekatu ditugun uneen isla direnak jaso nahi izan ditugu.

Ibilbide anitzetako emakumeak izan ditugu gure artean. Eskolan ikasteko aukera izatea ukatu eta etxean gaztetatik lanean hasitakoak, baserrian etxe barruko zein kanpoko zereginetan lan nekaezinean aritutakoak, igeltsero izan nahi eta baserrian lan egitera etsitakoak, nahi izandakoa ikasi eta negozio propioa zabaldu dutenak, Unibertsitatean ikasi eta enpresa zein irakaskuntza eremuan dihardutenak, kirol munduan arrakastaz jardun eta etengabeko formakuntzan dabiltzanak, ikasketa mardulak egin eta lan bila zein laneko lehen hastapenetan dabiltzanak, feminismoan aditu bilakatu eta jardunean dabiltzanak, jubilatu eta pozik ikerketan, zaintza lanetan zein herri mailako ekimenetan dihardutenak, herriko hainbat eremutan modu aktiboan parte hartu eta etorkizun ederraren alde ikasten jarraitzen dutenak…

Guztiek **adierazi dizkigute** euren zailtasunak (“umezurtz nintzela jaso ninduten izeba-osabek”), sufritutakoak (eskola eremuan sufritutako erasoak), egindako lana (“andrazko gabe ez dago baserririk”), ilusioak (“izugarri disfrutatzen dut nire lanean, irakaskuntza zein ikerketan”), erronkak (“gizarte justu batean sinisten dut”) eta ametsak (“emakumeen kontrako erasorik gertatuko ez den jendartean sinistu nahi dut”).

Une **hunkigarriak** ere izan ditugu: Saturrango kartzelako emakumeen egoera lazgarriaren berri izateko aukera izan dugu, gure ikasleek bizi izan zuten “salto-salto gela” amesten dugun jendartearen metafora gisa aurkeztu digute, eremu profesionalean izandako esperientzia deigarriak kontatu dizkigute, emakume gisa bizi izaten ditugun kontraesanak eta egoera ulergaitzak eta onartezinak partekatu dituzte gurekin, inguruan ditugun gizonekin izandako esperientziak ezagutu ditugu, emakume palisten lanaren eta ilusioen berri izateko aukera izan dugu...

Eta guztiek partekatu dituzte gurekin feminismoaren inguruko **gogoetak**. Gure aurrekoek egindako lanari esker egindako lorpenez baliatuz, batzen, elkartzen jarraitzeko mezuak jaso ditugu, talde lanean aritzeko esparruak sortu eta jendartea aldatzeko ahalmena indartuz. Horretarako, gizonak ere feminismoan behar ditugula adierazi digute hainbatek, bide hau guztion artean egin beharrekoa baita, eta hezkuntzak duen ardura ere azpimarratu dute. Geldiezina den trantsizio garai historikoan gaudela adierazi digute ilusioz, kontzientzia feminista garatzen ari garen garaian gaudela, eta gelditzeko iritsi dela.



OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03


Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

GATZA eta PIPERRA

Herriko hitzak eta esamoldeak asmatu edota bilatu beharko dira atal honetan. *Bai txo! euskara elkartia*k orain dela urte batzuk herriko hitzak eta esamoldeak jaso, mantendu, eta berreskuratzeko edota zabaltzeko helburuarekin egindako **Gatza eta Piperra** lehiaketan jasotako hitzak dira hemen agertuko direnak.

GURUTZEGRAMA

1. Pertsona-modu eskasa.
2. Makurtuta.
3. Ordainsari berezia.
4. Hazita ibiltzea, handikeriatan.



LETRA-ZOPA

1. Atea ia itxita; ..... irikixan
2. Dirurik gabe; .....-rik gabe
3. Panpina
4. Itsas brisa

T	Z	R	T	F	U	L	T
S	X	K	A	T	J	I	X
I	O	I	A	Z	L	U	O
R	N	G	R	I	S	T	T
R	L	A	P	T	U	S	X
A	S	T	U	S	I	B	I
M	A	R	A	M	I	A	K
H	K	R	M	I	K	A	I

soluzioak:

GURUTZEGRAMA: 1. Baezpakua 2. Kukulumutxu 3. Potxokua 4. Galanixan **LETRA-ZOPA**: 1. Txirt 2. Txotxki 3. Maramia 4. Bisutsa

ZELAIETA JATETXEA
Tel.: 943 60 45 95 Olatz Auzoa - Mutriku

ERAIKUNTZAK OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Nati Arreitunandia Larrañaga "*Tolon*"

Marama batekin jolasten

Ez du alboratzeko bere noblezia titulua, beti Nati "Tolon" izango baita. Nola ekarri zuten gurasoek Mutrikura kontatu digu, eta, beste zenbait mutrikuar emakumek bezala, nolako haurtzaroa, gaztaroa eta heldutasuna bizi izan duen. Pozik bizi da egun seme-alaben maitasunez blaiturik eta, jada, hegan egin dion Domeka senarraren memoriari atxikita.

Haurtzaroko zein gogorapen dituzu?

Ez dut gogoan nola etorri nintzen Mutrikura, urte eta erdi besterik ez bainuen, baina, hainbeste aldiz kontatu zidan amak, memorian nirea balitz bezala gordeta dudala: Ama Luisak eta aita Martinek haur-etxera ume baten bila joan eta aukeratu ninduten. Amak sei kiloko mutila erditu zuen etxean, ohikoa zen bezala; jaioberria hil eta ama beste umerik eduki ezinean geratu zen. Nire neba Isidro adoptatu zuten lehenengo, eta zazpi urtera beste bat adoptatzera joan zirenean, korro baten erdian ikusi ei ninduten marama batekin jolasten, eta biek batera: "horixe" esanez jaso eta Mutrikura ekarri ninduten, eta gaur arte. 1939ko irailaren 7an jaioa naiz, gerra bukatu zen urtean, eta auskalo nire aita-amek zein egoera pairatu behar izango zuten. Ume asko ziren ni bezala haur-etxera eraman behar izan zituztenak.

Era berean gogoratzen dut, gandu artekoak agian, haur-etxe publikoko arduradunak nola etortzen ziren etxera nire egoeraren jarraipena egitera, nola egiten zizkidaten galderak eta nola amari esaten zioten ez izateko niri buruzko inolako kezkarik, alabantzak besterik ez nuelako esaten gurasoekiko. Kozkortzen joan nintzenean ere, ni aukeratu izanaren une hura gustatu egiten zitzaidan, eta nire ama gajoak, erremediorik gabe, errepika eta errepika. Egun ere, bertan banengo bezala bizi dut.

Moilan bizi ginen, egun *Ezinaberastu*nekoak bizi diren etxean, eta itsasoa genuen zelai-gune. Orduan ez zen ohiturarik hondartzara joateko, intxirria zen gure bainu-lekua udaran, eta ez dut gogorapen nabaririk, soilik pozik bizi nintzela eta amak brodatzen egiten zuela lan.

Eta eskolako urteak?

San Miguelera joan nintzen karitateko mojekin. Banan-banan gogoratzen ditut orduko irakasleak, eta ez pentsa irribarrerik sortzen zaizkidanik atzera begiratzerakoan. "Parbuluetan"...: hala-nola; Sor Natividadekin ez nuen gaizki pasatu, baina Sor Guadaluperen gelara pasatu nindutenean, beste kontu bat izan zen hura. Une oro "kaskia" (kaskainetak, kastañoletak) eramaten zuen berarekin, eta haren kas-kas soinuarekin agintzen ziguten eleizan noiz belaunikatu, noiz eseri edo noiz zutitu, baina ez horretarako bakarrik, okerren bat egin edo gelan jartzen zuten arauren bat hausten bagenuen, esku ahurra itxi atzaparrak elkarrekin batuaz, eta haien puntak kolpatzen zizkigun kaskiarekin. Orduan joan nintzen "eskolano" bilakatzen. Hurrengoa sor Celestina izan zen, ikasketa kontuetan gaizki, baina eskulanak ere egiten genituenez, eta nola amarekin jostorratza eta haria erabiltzen trebatua nintzen, bere lanak egitera jartzen ninduen maiz, eta beno...



Kontua da, Begoñita "*Txino*" nuela lagun-min, eta hark, etxeko barkua etorri zen baten "*arratsaldez ez naiz eskolara etorriko*" esan zidan, "*barkurako sagarrak erostera joan behar naizelako Entzus baserrira*". Eta nik "*Neu ere zurekin joango naiz*". Huraxe izan zen lehen aldiz "*piper*" egin nuena, jarraian errazago eta ugariago. Ohitura har-



tu nuen eskolako erabiltzen genuen egurrezko maletatxoa "*Suilaingo*" etxearen goiko sarrerako atearen atzean ezkutatzea firin-faran ibiltzeko, baina, egun batez, *Matxitxa*nekoak sarrera garbitzerakoan maletatxoa aurkitu eta gure amari bidali, ahaztuta utzi nuelakoan. Orduan bukatu ziren koplak; hamar urte nituen eta *Arrasate*neko eskabetxean hasi nintzen lanean, zortzi orduan zortzi pezeta irabazten, baina "*ez pentsa eskola galduko duzunik*" zioen serio amak, eta Antoni *Maistria*renera joan behar izaten nuen, lana bukatu ondoren, ikasketekin jarraitzeko.

Hamalau urterekin *Busto* eskabetxera joan nintzen, baina aseguruak eta abar edukitzeko lehen mailako zertifikatua behar nuenez, lanetik irten eta San Miguelera joan beharra izan nuen, hurrengo apirilean zertifikatua lortu nuen arte; hura enpresan aurkeztu ondoren, hasi nintzen legalki lanean.

Dotrina ere ikasi beharko zenuten... Nola zen elizarekin harremana?

Eleiza kontuak gaur ere sakratuak badira, orduan askoz gehiago. Sakristian lehenengo eta ondoren kapilan irakasten ziguten dotrina. Abadeak ziren irakasle, eta oso gogoan dut Don Jesus, nire aita Martinen laguna zelako, organo jotzailea bata eta tenore ahots goxokoa aita. Sei urterekin egin nuen komunio txikia erle-izurrak zituen utzitako soineko arrosa jantzita; eta hamarrekin bigarrena, ordukoan, itsas koloreko eta izurrak zituen gona urdina jantzita, brusa zuria eta txaketa gorriarekin, denak erosi berriak. Hura galanixa!

Ze giro bizi izan zenuen nerabezaro-gaztaro garaian?

Beno, arestian aipatu bezala, Begoñita eta biok ginen lagun-min, eta orduko giroan biraka ibiltzen ginen. Bereziki gogoratzen dut, nahiz eta urte zehatza ez dizuedan esango, "*y eligió el infierno*" pelikula errodatu zela Mutrikun eta partaide izan nintzela beste mutrikuar askorekin batera. Zazpiehun pezeta ordaindu zidaten, eskabetxean irabazten nuen adina. Diru hura hartuta, han joan ginen Ondarroara begiak erne ea Joxemari eta Karmelo ikusten genituen, baina bira asko eman ondoren, aparejuak kale! eta berriro buelta etxera.

Hemeretzi urte bete berriak, Begoñita eta biok Kalbario egunez dantzan ginela, Kepa eta Domeka hurbildu zitzaizkigun dantza eskatzera. Bukatu ondoren, Begoñitak, afaldu ondoren kafe bat hartzera gonbidatu zuela, eta nik..., beno!, etxean gelditu nintzela erantzun. Baina Domekak Atxukaleraino lagundu, eta ea biok ere ez al ginen joango kafea hartzera orduko Dakar tabernara beste bikotearekin... Denbora gutxira, Begoñitak Kepari baiezkoa eman ziola eta, Domekak ea gu gutxiago izan behar al ginen! Hala, urriaren hogeita seian eman nion neuk ere baiezkoa. Eta, hemen izan gara elkarrekin Domekak hega egin duen arte, eta, ordutik, bere memoriari atxikita jarraitzen dut. Hogeita bi urterekin ezkondu nintzen urriaren hamalauan; Begoñita hurrengo maiatzean.

Nolakoa izan duzu ezkontza bizimodua?

Moilatik Samikoilara, orain bizi naizen etxera joanak ginen



bizitzera, eta bertatik ezkondu nintzen. Aita arrantzalea, senarra ere bai, amak ondo irakatsi zidan ordurako marinelen udaberria eta udararen ondoren, negua heltzen zela, eta sartzen ziren diruak txukun administratu behar zirela, horregatik ez ginen izan inoiz diru faltan, ez eta harrokeriatan ibili ere. Senarrak ontzi handietan ibili arren, etxeko "*Zeruko Argia*" potinean ere jarduten zuen, eta hurbilekoenentzako egin ondoren soberako arrainak plazara edo kalez-kale saltzera maiz joandakoa naiz. Potinaren "*Zeruko Argia*" izenarekin izan nuen anekdota txiki bat Iruñatik etorritako kaputxino batekin, eurek argitaratzen zuten aldizkariak ere izen bera zuelako; aitarengana eraman nuen, eta han jardun zuten hontaz eta hartaz hizketan.

Seme-alabak azkar etorri zitzaizkigun, bost urtean lau: Iñaki, Nerea, Maria Luisa (Madrilen bizi dena) eta Mari Nati, zortzi urtera Martin izan genuen, eta, zer esango dizuet bada, pozik bizi izan naizela haserreei ihes eginez. Beti izan naiz alaia, eta gaur ere hala jarraitzen dut.

Beste zerbait esateko Kalaputxitik?

Austin Txurrukari ikasitako esaldia botako dizuet: Penak eta trabajuak, jan digu kordela marrajuak!!!

Badu sakontasunik esaldiak.

IBARPLAS
leihoaren erreferentzia
Itziarko poligonoa, C pabilioia · 20200 ITZIAR · Tel. 943 199226 · www.ibarplas.com · ibarplas@ibarplas.com

LEHENGO DIRUA

ur azpixan, erremeixuetan eta esaeretan

Umetan, famelixakuak Donosti aldera juaten giñanian, ziharo harritxuta lagatzen nitxuen hango portuko gazte abillek. Portuan barruna pasiatzen zabiltzenek txanponak botatzen zixuezen uretara, eta, jakiña, gaztiek aburo asko harrapatu!! Oraintsu jakin det Mutrikun ere egon zala uretara dirua botatzeko ohitxuera hori, eta aspalditxik gaiñera.

Sasoi baten beraneantiak etortzen ziranian, frantsesak-eta, txanponak botatzen zitxuen uretara Molla berritxik: txori-haundixak, errial bikuak... Eskailletetan zain egoten ziran gaztiak. Uretara dzanga egin eta dirua batutakuan han azaltzen ziran berriz ere, txakurra bere nagusixarengana hurreratzen dan bezela, olgatzeko gogoz. Ia hurrengo txanpona zeiñek botako.

1950. urte inguruan gazte asko ibiltzen zan Mutriku zeregin hortan. Batzuek zinera juateko dirua lortziarren, beste batzuek aparteko txanpon batzuk aurreratziarren... 9-10 urteko gaztetxo batzuk abillak ziran "buzo-igarixan" (halaixe esaten zako Mutrikun), esaterako, Iñaki Arrizabalaga "Kaballo" eta Cesareo Agirrebengoa.

Tarteka Intxirrixan ere ibiltzen ziran, han *ubaroi* edo sakonera txikixagua egoten zan, bi metro edo bi metro eta erdikua. Molla berri parian berriz 5-6 metrokua. Han, txanponak behera jun bitxartian hartu bihar izaten zitxuen, bestela beheraiño juan bihar, hondoraiño.

Cesareori entzunda jakin degu txanpon zuri eta gorrixak errez ikusi zeikezela, baiña "errubixia" (pezeta horixa) ez zan ondo ikusten ur azpixan: "*eztaka bistarik, eta goixa illuna bazauan gitxio, goi argixakin zeozer, baiña goixa illluna bazauan batez*".

Dirua lortziarren bakarrik ez, gaztiak koadrillian olgatzeko ere ibiltzen ziran *buzo-igarixan*: Astilleroko mollatik teilla-puxketak uretara bota eta han ibiltzen ziran ia zeiñek zati gehixago hartu.

Gazte batzuek txanpona eskuan hartuta juaten ziran behetik gora. Beste batzuek, berriz, dirua ahuan (hagiñetan edo ezpaiñetan) hartuta juaten ziran ur-azalera.

Azaldutako horrek baiño ehun urte lehenago, 1849. urtian, Francisco de Paula Madrazo izeneko bidaiarixak liburu baten jaso zoan aurreko urteko egonaldixa Gipuzkuan: "Una expedición a Guipúzcoa en el verano de 1848".

Mutrikuren berri eman zoanian, hara zerk eman zion atentziua: "*los muchachos más pobres se familiarizan con las olas para emprender mas tarde la profesión de sus padres, y apenas ven atravesar por el muelle á algun forastero, se despojan de sus vestidos y se lanzan al mar, porque nadan como peces. Informados los forasteros del objeto de aquel baño improvisado, se divierten un rato en arrojarles monedas, casi siempre de cobre; á distancia en que hay diez y más varas de profundidad, y los intrépidos nadadores las sacan en los dientes después de haberse sumergido en el fondo de las aguas y de haber aparecido en su superficie en dos ó tres minutos*".



10 kanatik gorako *ubaroia*!!! Kontuan hartzen badegu kanak ('vara', luzera neurrixa) 0,83 metro dakazela errez atera leikez kontuak: 10 kana x 0,83 metro = 8,30 metro. Ez ziran makalak orduko mutrikuarrak!!

Jeneralian umiek gitxitxan ibiltzen zeuen dirua olgatzeko. Batzuk bai, han ibiltzen ziran frontoiko lurrian arraiak egiñ eta zeiñek txanpona gehixago arrimau arraira.

Dirua eta osasuna

Mutrikun, beste herri askotan bezela, olgatzeko ez ezik osasun kontuetarako ere erabilli izan dira txanponak.

Alde batetik, buruan kolpe haundixa hartuta *tronpoilluak* ertetzen zoanerako ziran aproposak. Txori-haundixa hartu, zabal-zabala zalako, eta zapi batekin ondo-ondo lotuta jartzen zan. Halaixe bajatzen zan tronpoillua.

Beste alde batetik, etxe askotan *garitxuak* osatzeko ere erabiltzen ziran txanponak. A).-Batzuek dirutxoren bat bat hartu (errial bikua, kobrezko txori-haundixa...) garitxuetan igurtzi-igurtzi egin eta eleizan botatzen zeuen, Kristo Galbaixokuari, konparaziotarako. Ganauen garitxuen kasuan San Antoniori botatzen zakon diru haura. B).-Beste batzuek txanpona igurtzitxakuan hiru bidek bat egitxen zeuen tokixan (bide-kurutze baten) botatzen zeuen. C).-Garitxua zanian, etxe batzuetan garitxuetan ondo igurtzi eta eskian zatorren eskaliari ematen zakon. D).-Beste etxe batzuetan kontrakua esan digue, eskaliak aldian zakan txanpona bihar zala garitxuetan igurtzitzeko. Lehengo zaharren esanetan fediaren gora-beherak ziran horrek, baiña baten batek aitxatu digu sorginkerixak zirala errermeixo horrek.

Txanpon motak

Orain euruak eta zentimuak erabiltzen ditxugu aurretik pezetak eta errielak erabiltzen ziran bezela, baiña, beste dirurik ezagutu al dezu?

Txori txikixa (edo txakur txikixa): 5 zentimokua zan. Zaharrenak kobrezkuak ziran, gero etorri ziran txori txiki zurixak, aluminiozkuak. Ahoz "txotxikixa" esaten zakuen. Gaur egun ere, dirurik gabe gabiltzenian "txotxikirik gabe gozela" esaten degu.

Txori haundixa (edo txakur haundixa): 10 zentimoko txanpona. Ahoz batzuek "txoraundixa" esaten zixuen. Honek ere kobrezkuak ziran hasieran eta geruago aluminiozkuak.

Hamar errialekua: 2,50 pezetako txanpona.



Rubixia



Txori txikixa



Txori haundixa eta txori txikixa

Erriela (edo erriala): Pezetaren laurdena, 25 zentimo.
Errial bikua (edo bi errielekua): Pezeta erdixa, 50 zentimo.
Pezetia (lau errialekua): *Pezta* ere esaten zakon.
Rubixia (edo pezeta rubixia): Lehelengo *rubixia* errepublika sasoiko latoizko pezetia izan zan. Andrazkua azaltzen da bertan. Geruago, Francok ateratako pezeta horixkariei (%90 kobria, %10 aluminiua) ere halaixe esaten zakuen.

Durua: Batzuek *hogerlekua* edo *hogorlekua* esaten zixuen, baiña batez ere Bizkaiko formatzat jotzen da Mutrikun. 5 pezetako (edo 20 errialeko) txanpona zan durua.

Aspaldiko diruak ere goguan daukez mutrikuar batzuek:

Ontzako urria: Urrezko dirua zan, balixo handikua. 16 edo 20 duroren parekua. Jokuan ibiltzen zan, edo baten bat ezkontzen zanian, dotetzat.

Lauzurikua (edo lauzikua): balixo gitxiko dirua, 4 zuriko ('4 blancas'). Erderaz ere diru gitxirekin geratziari "quedarse sin blanca" esaten da.

Esaera zaharrak

Sasoi baten esaera zahar asko erabiltzen zan Mutrikun, oraingo aldian. Mutrikun entzundako batzuk ekarri ditxugu hona:

1. "***Txori txiki baten pupua eta pezta baten trapua***"; "**Bi errielen pupua eta bi peztan trapua**"; "**Bi xentimon pupua ta pezeta baten trapua**"; "**Atzamar txikixan pupua ta lauzuriko trapua**". Joseph de Jesus María Araquistain karmeldar debarrak XVIII. gizaldixan Aita Larramendiri bidalitako esaera zaharren zerrendan ere agertzen da: "Al delicado, poco mal y bien atado; *zuri baten papua eta lauzurico trapua*". Kexaka dabillenari esaten zako esaera hau, edo zeozer konpondu bihar danian diru gehixegi gastatzen danian.

2 "***Gure diruak arrak dira, auzokuenak emiak***". Hain zuzen ere, bestien etxietan ugaritxu egitxen dirala, eta norberarenian, berriz, ez.

3 Ziñuako Pedrori ikasi nion esaera hau: "***Lauzikuan idixa, baña lauzurikorik ez***". Gauzak sasoi baten merkiak ziran, baiña dirurik euki ezian merkia ere karu.

4 "***Pezetaka-pezetaka, dirua***". Poliki-poliki aurreratuaz egitxen dala dirua. Andaluziatik etorritxako batek hala esaten ei zoan: "*Hay que ahorrar perrica a perrica*".

5 Diruak poztu egitxen gaitxuela adierazteko: "***Diruagaitxik txakurrak ere dantzan egin zoan***". Kontrako kasuan: "***Alegrantzirik ere ez, dirurik ez bado etxian***".

6 Itxura danez, dirudunen eskuetara juaten ei da dirua: "***Diruak dirua eitxeu*** [egitxen deu]".

7 Dirua daukanari igarri egitxen zako: "***Dirua daukanak bistau eitxe'u*** [egitxen deu]".

8 Dirua baiña, euki ezkero zaindu egin bihar: "***Dirua, dabillen lekuan galtzen da***". Batere ez daukanak, berriz: "***Lapurra gurera ez da etorriko, dirurik ez do-eta***".

9 Diruduna zekenagua izaten da maiz: "***Zenbat eta gehixo euki gehixo nahi***".

10 Baiña, dirua beti ez da gauza ona. "***Dirua, inpernuko diabrua***"; "***Diruak egitxen ditxuz arregluak eta hasarriak***".

11 Dirua txarra dala esaten diharduenei ematen zakuen erantzuna: "***Dirua esku askotan ibillitxakua da, baiña danak gustora hartzen deue, horrek eztaka kontajion billurrik***".

12 Dirua zela lortu dan, hala gozatzen da: "***Norberaren izerdixarekin ateratako dirua doblia izaten zan estimatua***"; "***Nekiakin egindako dirua estimauena***"; "***Nekez irabazitxako dirua, hola gastatzen dezu?***" (parrandan, konparaziotarako); "***Dirurik gozuena iñok emandakua***".

13 Dirua lagatziak bere arriskua dauka: "***Dirua lagunari prestau, ez dakazu bueltan hartzerik***"; "***Dirua lagunari laga ezkero, dirua eta laguna galdu***".

14 Diruarekin gauza asko lortu leikez: "***Diruak, ate gehixenak zabaltzen ditxuz***"; "***Dirurik ez, lagunik ez***". Dana dala, dana ezin leike eskuratu: "***Diruak dana ez deu egitxen e!***"; "***Diruakin dana ezta arreglatzen... txo, mundu hontan dana ezta dirua, e!***"; "***Osasuna kendu ezkero, diruakin beste gauza danak arregatzen diaz***".

15 Bizitza osuan aurreratzen jarduten deuenei esan leikixue: "***Gaztetan gastau, zahartzaruan ez dakazu-eta gastatzeko abilidaderik***".

16 Heriotzak aberatsak eta pobriak berdintzen gaitxuela esateko: "***Asko zakan, baiña danak hementxe lagata jun da***".

Entzun degunez, Mutrikun, edonun bezela, bazan andria edo senarra baiño dirua maitxiago zoanik. Halakuei "dirux" esaten zakuen. Baiña, beste muturrian, geure herrixan jente eskuzabala ere bazauan, estu zabiltzenei edonoiz laguntzeko prest egoten zana. Orain ere halaixe.

Josu Larrañaga Arrieta



ARRAUN TALDEA HAZTEN

Aurten hasi dira Mutrikuko Arraun taldean. Iraia, June, Ane, June, Eneritz, Naroa, Miren eta Ilazki dira. Irrifarrik galdu gabe atera dira uretatik. Gaurko entrenamendua bukatuta lasai eseri gara beraiekin.

Beste kirol batzuetatik datoz batzuk, beste batzuk berriz ez dute inoiz kirolik egin edo ez dute inolako kirol taldean parte hartu. Eskubaloia , zesta, eskalada, futbola... aipatu dituzte kirolean jarduten dutenen artean.



Nesken bi talde berri atera ditu Mutrikuko Arraun taldeak; kadete kategorian eta haur kategorian. Gazte kategoriko bigarren mailan ere, ari da nesken taldea duela hiru urtetatik. Gizonezko seniorrak, neska gazteak eta kadeteak dira lehia-tzen direnak, hau da, txapelketa ezberdinetan parte hartzen dutenak, umeenak ez.

Urtarrilean ekin zioten lehiari, eta Kalaputxirekin bildu ziren unean lau estropada zuten jokatuta, lehenengoa Donostian eta beste hirurak Pasaian. Zumaian zutena bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik. Kanporaketak, berriz, apirilean izango dira eta han ikusiko da aurrera egiten duten ala ez.

Orain artekoari buruz esperientzia ona izan dela diote: *"Arraunera ondo pasatzera etorri gara", "ez diegu puntuaketei eta postuei kasu handirik egiten, gure jarduna hobetzea nahi dugu baina itsutu gabe". "Hasiera izateko ondo sentitu gara, uste baino hobeto. Gure nahia probatzea izan da eta gure usteak beteta gelditu direla esan dezakegu".*

Arraunera salto egiteko arrazoiak ere anitzak...

"Arrauna barrutik ezagutzeko gogoa. Moila jeitsi eta jendea entrenetzen ikusi ondoren nolabaiteko inbidia sentitu izan dut, eta horrek ere eraman nau arrauna probatzera". "Itsas herria izateak badu eragina guregan, betidanik ezagutu dugu itsasoa eta erakargarria izan da niretzat".

Arraunaren gogortasunaz galdetuta...

"Hasieran bai, eskuetan babak izan ditugu, eta ipurdia ohitzea ere ez zaigu erraza izan".

Entrenamenduetara ere gogoz joaten dira...

"Elkarrekin ondo pasatzera goaz, talde giroaz gozatzera". "Astean hiru egunetan entrenatzen dugu, arratsaldeetan, bi txandatan batelak bost lagunekoak direlako, lau arraunlari eta patroia". "Entrenatzailearekin gustura egotea ere garrantzitsua da; Loren oso ondo portatzen da gurekin, gu ondo sentitzea nahi du eta asko errazten digu dena". "Estropada egunean ere ez zaigu batere kostatzen hara eta hona ibiltzea".

Arraunaren munduaren berri jasotzen...

"Ez dugu arraun mundua asko jarraitzen. "Aurten izan dugu lehenengo kontaktua, orain-txe hasi gara eta ez dakigu asko honetaz". "Garai batean ez nion kasu handirik egiten arraunari baina egun batzuetan arreta jartzen diot han edo hemen ari direnean arraunari buruz". "Udan arraun eskolan ibili nintzen eta hura izan zen arraunerako zaletasuna piztu zidana". "Batek edo bestek badu edo izan du norbait arraun munduan ibilitakoa baina guretzat berria da dena".

"Aberasgarria da lehiatzera joaten garenean beste klubekoekin ditugun harremanak". "Gipuzkoa mailan jokatzen dugu eta uste dut hogeita piku talde garela, pentsa zer saltsa sortzen dugun".

Denboraren joanean taldeko kideak elkar ezagutzeko ere balio izan die...

"Batzuek ez genuen harremanik elkarrekin eta orain taldean elkar ezagutzen goaz". "Zeinek esango zidan niri aurten itsasoan ibiliko nintzela! Beti ibili izan naiz gustura itsasoan baina orain beste modu batera ikusten dut". "Taldeko esperientzia garrantzitsua da guretzat, gu eta gure ingurua hobeto sentitzeko balio digu".

Aurtengo helburua...

"Gozatzeaz gain arraunean ikastea, hobeto egitea". "Deborak hobetzea ere ez dago gaziki".

Itsasoan... ibaian...

"Ezberdina da batean ala bestean. Gure entrenamenduetan itsaso ona badago kanpora ateratzen gara, pixkat, itsaso txarrarekin, berriz, ergometroan aritzen gara".

Gertaera xelebreren bat...

"Behin bateletik uretara erori nintzena, arropa eta guzti..." "Nik neuk ere ez nuen pentsatuko neguan uretan ibiliko nintzenik".

Merezi duelako...

"Neskak arrauna probatzera animatu nahi ditugu, agian ez dakite eta zerbait gustukoa ari dira galtzen". "Batzuek jarraituko dugu gure beste kirolekin eta arraunarekin ere". "Gure arteko harremana izugarria delako merezi du".

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

aparra
www.aparramoda.com
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

GAZTEEN MAILA

Gazteen mailak indartsu ekin dio denboraldi berriari. Hirugarrena dute aurtengoa. Lehenengoan ganora gutxirekin ibili zirela aitortzen dute. Bigarrenean berriz, gogo gehiagoz jardun arren azken postuetan ibili ziren gehienetan, baina azken txanpan lortu zuten pare postu gora egitea. Emaitza onenak lortu ez arren ilusioz bukatu zuten denboraldia.

Aurtengo helburuen artean berriz, iaz baino hobeto ibiltzeaz gain lagunen artean kirola egitearena da. Ikasketak eta hainbat gauza tarteko entrenamendu batzuk galdu dituztela diote eta pozik daude azken posturik ez dutelako ikutu. Batel denboraldia amaitu arte duten onena emateko prest agertu dira neskak.

Bestalde, badakite dauden lekuan daudela Loreneni esker. Lorenen prestutasuna eta laguntza ezinbestekotzat dute, era berean eta Kalaputxiren aukera aprobetxatu nahi izan dute eskerrak emateko.







ELKARREKINTZAN *STEAM* BULTZATUZ

Aurten, bigarrenez, Steam Astea antolatu dute Goizeko Izarra ikastolan. Zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematika sustatu eta zabaldu nahi izan dituzte; gelan egiten dituzten ekintzak erakutsiz. Aldi berean, ikasleen motibazioa suspertu nahi dute STEAM bokazioetara erakarriz eta emakumeek STEAM bokazioetan duten garrantzia nabarmenduz. Hori lortzeko asmoz, ekintzaz josítako egitaraua burutu dute. Mutrikuko Araztegia, Kilimon, Kardala Akuakultura eta Ekainberri bisitatzeko aukera izan zuten, eta eskualdeko eta inguruko Lanbide Heziketako zentroen partehartzea jaso zuten: Armeria Eskola, Mutrikuko Institutua, Kardala Akuakultura Eskola, Meka, Azkoitiko Izarraitz Lanbide Heziketa eta Elgoibarko IMH. Horrez gain, Berritzegune Nagusiko kideen bisita pozik hartu zuten. Era berean, gustura entzun zituzten Steam bokazioetan jarduten duten hezkuntza komunitateko kide diren guraso eta senitartekoen esperientziak.

Asteari amaiera emateko berriz, ikasleek elkarrekintzan, Steam bizipenak elkarbanatu zituzten. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako txikienek jolastokiko eremuan esperimentatzeko aukera izan zuten. Aldi berean, Lehen Hezkuntzakoek, metodologia berriak ezagutu eta mailen arteko feedback saioa egin zuten, elkarri esperimentuak eginez. Bereziki, azken egun horretan Laudioko Latiorro eta Gasteizko Ikasbide ikastetxeko irakasleak Goizeko Izarra Ikastolako praktika onak ezagutzera gerturatu ziren.





AUZOKATU ELKARTEA

Betidanik ikusi ditugu katuak gure artean, kalean zein etxeetan. Azkenaldian baina, hauek urritzen doazela ematen du. Herritar batzuek ez dituzte oso gustuko. Badira ere oso maite dituztenak baina kontrolik gabe eta edozela janaria botatzen dietenak. Bizikidetza arazoak sortu dira auzo batean edo bestean.

Gaiak kezkatuta daudelako, katuen aldeko talde bat sortu berri da Mutrikun, *Auzokatu Elkartea*, eta eurekin bildu gara mahaiaren inguruan.



Betidanik ikusi ditugu katuak gure artean, kalean zein etxeetan. Azkenaldian baina, hauek urritzen doazela ematen du. Herritar batzuek ez dituzte oso gustuko. Badira ere oso maite dituztenak baina kontrolik gabe eta edozela janaria botatzen dietenak. Bizikidetza arazoak sortu dira auzo batean edo bestean.

Gaiak kezkatuta daudelako, katuen aldeko talde bat sortu berri da Mutrikun, Auzokatu Elkartea eta eurekin bildu gara mahaiaren inguruan.

Zer dela eta hasi zarete kontu honekin?

Gu aspaldi hasi ginen katuak nola zeuden ikusten eta honetaz arduratzen; zaintzen, jasotzen, albaitariengana eramaten, adopzioan ematen… duela lau bat urte edo erreskate talde batean batu ginen eta denborarekin gehiago gara, gai honen inguruan elkartutakoak.

Noiztik kontu honekin?

Ni (Nekane) urteetan nabil baina kaleko katuekin oraintxe hasi gara. Aurretik esan beharko genuke animalia zaleak garela eta horien zaintzak arduratzen gaituela. Debabarrenako txakurtegiaren araudiarekin bueltaka gabiltza aspaldion, utzita dagoela uste dugulako. Bakoitza bere aldetik genbiltzan eta batzea erabaki genuen. Elkarte honekin hasteak badu bere arrazoia; iazko neguan txakur bat eta zazpi katu agertu ziren hilda Musika Eskola inguruan. Gure susmoa da pozoituta hil zirela, hau da, baten batek jarritako pozoiaren ondorioz hil zirela.

Badakigu badela jendea katuak gustuko ez dituena. Guk gure aldetik diogu kaleko katuak euren betebeharra dutela, arratoien aurkako baliabide garrantzitsua direla. Katu kopurua Mutrikun ez da handia. Herrian zehar ibili gara katu koloniak lokalizatzen eta ikusi dugu zein egoeratan dauden, badakigu non dauden eta zenbat diren eta ez dira asko. Gure nahia da zainduta edukitzea, osasuntsu, albaitariarengana eraman behar direnean eraman, bizi diren lekuak garbi mantendu, eta abar.

Komeni al da jaten ematea…

Jaten ematearen kontuan ere badira hainbat iritzi… badakigu jendeak leihotik eta botatzen diela janaria, inguruak zikinak gelditzen direla… arrain hezurrak eta oilasko hezurrak ez dira janaririk egokienak katuentzat. Gure apustua pentsuaren aldekoa da, ona da eurentzat eta era berean garbia. Honetarako janlekuak jartzea ikusten dugu egokiena, leku zehatzetan, euren kolonietan jartzea eta kontrolatuta edukitzeak asko laguntzen du katuen osasunean eta inguruko garbitasunean.

Mendeetan ari dira katuak euren lana egiten, hau da, arratoiak harrapatzen. Janaria emateak ez du esan nahi ez duela bere lanik egingo, bere ehizatzeko senak hor jarraitzen du nahiz eta

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak…)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

bakoitzak jaten eman. Arratoiak, saguak, sugeak... janaria emanda ere ehizatzen dute, harrapatu eta ofrenda gisa jartzen dute denek ikus dezaten zer ehizatu duten. Honen inguruan dagoen desinformazioa komeni da argitzea. Bestalde, jatekoa ematen dion horrek ere ez dio janari egokirik ematen ez dakielako; arrainen hezurrak, oilaskoen hezurrak... ez dira onak katuentzat. Bestalde, inguruan sortzen duten zikinkeriak ere euliak eta arratoiak erakartzeko besterik ez du balio. Aurrez esanda bezala, pentsuaren aldeko apostua egin nahi dugu garbiena eta sanoena delako. Eta norbaitek jararia uztekotan zikinkeriarik ez botatzea eskatzen dugu, denon onerako da eta.

Zuen proiektua aurkeztu duzue...

Bai. Guzti hau aurrera eramateko dirua behar da. Guk gure lana musutruk egiten dugu baina beharko genituzkeen bitartekoak erosteko ez dugu dirurik. Honen harira esan, bildu garela udaletxeko zinegotziekin eta begi onez ikusi dutela gure ekarpena. Bestalde, udaletxekoekin Bildu garenean ikusi dugu katuen ordenantzarik ez dagoela udalean, gu horretarako ere prest agertzen gara.

Katuak ez dira basatiak gurekin bizi dira. Beharrezkoak ditugu kaleko katuak bestela arratoiek gain hartuko digute. Herriko auzo batzuetan arazoak dituzte arratoiekin eta katuak izan daitezke soluzioa, hori uste dugu guk behintzat. Kontzientzia hartzea beharrezkoa da. Pozoia ez da soluzioa. Gure proposamena gu geu arduratzea da, hau da, inguruaren mantenuan, janaria jartzeaz, garbia edukitzeaz...

Antzutze kanpainak ere egiten dituzte han eta hemen...

Katu asko dagoen tokian egin behar dira eta horren alde gaude baina Mutrikun ez dago arazo hori, guk kontatuta dauzkagu eta hogeita hamar bat izango dira hemengo kaleko katuak. Horiek antzututa ezin da aurrera egin. Urteak pasa ahala eta ikusiz gero katuen koloniak gora egin duela nabarmen, orduan izango da bai neurriak hartzeko ordua. Jaiotako katu guztiak ez dute aurrera egiten, asko hil egiten dira arrazoi desberdinengatik. Gure lana da jendea kontzientziatzea kale katuak gurekin behar ditugula eta kalte baino mesede gehiago egiten digutela.

Auzokatu Elkarteko kideak prest daude edozein zalantza argitzeko edo interesa duten herritarrekin lanean jarduteko.

Harremanetarako telefonoa:
687 773 779 (Nekane)

AUZOKATU ELKARTEA







ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



IXONE
Zorionak etxeko danon partez gure neska alaiari!



HODEI
Zorionak etxeko danon partez, batez ere arreba Marenen eta lehengusu Peioren partez, martxoaren 20an 4 urte bete duzulako!



ADEI
Zorion-on-onak zure bigarren urtebetetzian! Milaka muxu Aner, Danel, Ibai, Enaitz eta Eberren partez.



ANJE
Hogeita hamarrean ez esku es muxu koronabirus tarteko, belarritikan teinkada bat zorionak emateko!



ADEI, ROSA, EBER eta UNAI
Zorionak laukote urte berri bat bete duzuelako. Aupa txapeldunak! Zorionak danon pratez, bereziki Ibai, Enaitz, Aner, Adei eta Danelen partez.



MARI CRUZ eta JOSE LUIS
56 urte elkarrekin egin dituzuze, familia eder bat osatu eta maitasunez inguratu zuen lagun eta auzokideak. Guzti horregatik Zorionak ama eta aita! Zuetaz harro gaude!



GAIZKA
Zorionak gure felizianoari! Martxoaren 27an 5 urte handi betetzen dituzulako. Mila muxu familiaren partez!



ITZIAR eta MARIBEL
Bi “gazte” alai hauei euren urtebetetzean... ZORIONAK!!! Eutsi umore horri!

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Argazki Zaharrak









Argazki zaharrak erakutsi nahi?

>> kalaputxi2001@gmail.com

>> wathsapp: 635748393

>> Ansorregi zapata denda



ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea 9
mutriku
943 60 33 42
agerretxo@gmail.com

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ZAINTZAKO BOTIKAK

(gaueko 10ak arte)

MARTXOA		APIRILA	
20tik 22ra	Lon Apraiz	1 eta 2	Lon Apraiz
23tik 26ra	Hiart Burgoa	3tik 5era	Lasuen Elezgarai
27tik 29ra	Amaia Zalduegi	6tik 9ra	Amaia Zalduegi
zapatu (28) goizean, Lon Apraiz		10etik 12ra	Hiart Burgoa
30 eta 31	Lon Apraiz	zapatu (11) goizean, Lasuen Elezgarai	
Gauetan, egunero (22:00-00:00):		13tik 16ra	Lasuen Elezgarai
Elgoibar		17tik 19ra	Lon Apraiz
Gauetan, egunero (22:00-09:00):		20tik 23ra	Hiart Burgoa
Celia Barandela 943 20 69 84		24tik 26ra	Amaia Zalduegi
Ziriako Agirre kalea 4, Eibar		zapatu (25) goizean, Lon Apraiz	

##AGENDA##

MARTXOAK 27
Berdel Aipamena

APIRILAK 4
Berdel eguna

Eguerdian, Abesbatzak Zabiel plazan.

12:30etatik aurrera, BERDEL DASTAKETA moilan

Herriko produktu gastronomikoen postuak egongo dira.

Arratsaldean, Elektrotxaranga herrian zehar.

Gauean, Goiko plazan: Modus Operandi eta Errietan

APIRILAK 12
Aberri eguna

ODOLA EMATEA

apirilak 17

· ekainak 12 · abuztuak 21 · urriak 23 · abenduak 11 ·

Anbulatorioan, 18:00etan
Gipuzkoako Odol Emaileak

MENDI IRTEERAK

apirilak 5
Ibarra - ORISOL (1.132 m.)- Ibarra

maiatzak 10
Otzaurte - ARATZ (1.445 m.) - Otzaurte

ekainak 14
Gorostapolo - HAUZA (1.304 m.) - Izpegiko lepoa

uztailak 3, 4 eta 5
PIRINEOAK - Tendeñera mendilerroa

irailak 13
Jarla eta Carla

urriak 18
BIANDITZ (844 m.) - Artikutza inguruak

azaroak 15
Lagran - SAN TIRSO (1.333 m.)

abenduak 13
Deba inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

Zure Elkartearen ekitaldiren bat edota deialdiren bat ***Kalaputxi***n erakutsi nahi baduzu,

idatzi hauetako batera:

kalaputxi2001@gmail.com

whatsappa 635748393

apirileko aldizkarian argitaratzeko

apirilaren 10erako

bidali zuen lanak

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

Markina-Xemein 946169002 • info@leartik.eus www.leartik.eus

LANBIDE HEZI KETA BATXILERGOA



ate irekiak apirilak 25, 11etan

ERDI MAILAKOAK

- BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

GOI MAILAKOAK

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
- ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA

lea artibai ikastetxea

GALDONA

apirilak 13, astelehena, PAZKO TXIKI

bazkaria eta erromeria

iker allur eta montxito

trikitijoleak

eguneko menua daukagu

camping GALDONA

JATETXEA ERRETEGIA

TEL. 943 60 35 09

ARKUMEA ZOZKETATUKO DA!

GALDONAMENDI



Pol. ANTZOMENDI - Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

- ITV
- DIAGNOSIA
- ELEKTRIZITATEA
- MEKANIKA
- GURPILAK
- MANTENIMENDUA

Aurrekontuak konpromiso gabe

Autoa nahi duzun tokian jaso eta itzuliko dizugu